

Garapen Iraunkorra

(Sustainable Development)

Bustinduy, Malen; Zarate, Nerea; Balboa, Naiara; Diaz de Garayo, Izaskun; Cid, Maria; Oarbeaskoa, Ekain; Uribetxebarria, Maite; Urrutibeaskoa, Nekane; Garigorta, Josu; Ingles, Natalia; Arkarazo, Amaia; Macarro, Aizpea; Agirre, Leire
UPV/EHU. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola. Ramón y Cajal, 72
48014 Bilbo

Desberdintasun sozialak areagotu egin dira herrialde eta pertsonen artean maila ekonomikoari dagokionez. Kontsumismoan eta indibidualismoan oinarritzen den gizarte batean bizi gara. Bestalde, populazioa geroz eta zaharra da, bizi esperantzak gora egin duelako eta herri aberatsetan jaiotze tasa geroz eta baxuagoa delako. osasun eta gizarte gastuen hazkundera dakar. Azken urteetan inmigrazioak gora egin du, eta horrekin batera herrialde horietako pobrezia ere.

Giltza-Hitzak: Garapen Iraunkorra. Aldaketaren beharra. Desoreka. Gizarte berria.

Las desigualdades sociales han aumentado en lo que respecta al nivel económico entre países y personas. Vivimos en una sociedad basada en el consumismo y el individualismo. Por otra parte, la población envejece cada vez más, porque la esperanza de vida ha aumentado y porque la tasa de nacimientos en los países ricos cada vez es menor. Ello conlleva el aumento de los gastos sociales. En estos últimos años la inmigración ha aumentado, y con ello la pobreza de esos países.

Palabras Clave: Desarrollo Sostenible. Necesidad de cambio. Desequilibrio. Nueva Sociedad.

Les inégalités sociales ont augmenté en ce qui concerne le niveau économique entre pays et personnes. Nous vivons dans une société basée sur la surconsommation et l'individualisme. D'autre part, la population vieillit de plus en plus, car l'espérance de vie a augmenté et parce que le taux des naissances dans les pays riches est de moins en moins important. Cela entraîne l'augmentation des frais sociaux. Au cours de ces dernières années l'immigration a augmenté, et avec elle la pauvreté de ces pays.

Mots Clés: Développement Durable. Besoin de changement. Déséquilibre. Nouvelle Société.

1. EZBERDINTASUN SOZIALEN HAZKUNDEA

Argi dago mundu honetan dauden ezberdintasun sozialak oso handiak direla, baina ez bakarrik herri aberats eta pobreen artean, herri bakoitzak ditu ezberdintasun sozial esanguratsuak bere barnean. Herri aberats edo garatuetan adibidez ekonomiarri dagokionez, hauek kapitalak kanpoan inbertitzeko joera dute eta garatu gabeko arietan ordea, kapitalak gutxi batzuen menpe daude eta atzerriko diruaren menpekotasuna industrializazio eskasarentzako oso beharrezkoa da. Gizarteari dagokionez, herri garatuetan jaiotze-tasa eta heriotza-tasa baxuak izaten dira eta bizi-itxaropena altua da baina garatu gabeko herrietan berriz, jaiotze-tasa eta heriotza-tasa altuak dira; bizi-itxaropenari dagokionez, batzbestekoa baxua da.

Ezberdintasunak ugariak dira herri aberats eta pobreen artean eta ezaugarri eta adibide asko daude. Herrien artean dagoen ezberdintasun sozialen zergaitia, historian zehar eman diren hainbat aldaketan ondorio dira. XX. Mendean bi bloke sozioekonomiko garrantzitsu zeuden, alde batetik ekonomia kapitalistaren demokrazia liberala eta bestetik ekonomia sozialistaren herri-demokrazia. EEBB-ek eta SESB-ek beraien eredu ekonomiko eta sozialak beste herrietan hedatzea nahi zuten, eta bi ideologi kontrajarri hauek, bi potentzien arteko tentsiozko erlazioak sortu zituen, honek "gerra hotza" deritzona ekarri zuen.

Esan beharra dago ekintza horiek guztiek ekarri dutela gaur egungo egoera. Argi dago hala ere, ezberdintasun sozialak betidanik existitu direla historian zehar herri batean edo bestean. Gaur egun, herrietan dauden ezberdintasun sozialak handiak dira. European adibidez, imigrazio ugari dago eta honek nahitanaiez ezberdintasun sozial asko ekartzen ditu. Datozen etorkinak mundu berri baten bila datoz, lanaren bila datoz, janariaren bila datoz eta askotan ez dira ongietorriak. Honek egoera sozial berri bat sortzen du eta erlazio gatazkatsuak ekar ditzake.

2. KONTSUMISMOAREN GORAKADA

Gaur egun bizi dugun gizarte honetan kontsumismoa denon ahotan dagoen hitza da, denongan eragina duelako eta denok garelako honen errudun. Gizarte kapitalistak behar ez dugun kontsumora bideratzen gaitu. Benetan beharrezkoa ez den kontsumoa, beharrezkoa dela sinistarazten digute. Telebistan, irradian, iragarkietan, prentsan eta beste leku askotan, kontsumora bideratzen gaituzten mezu deigarriak azaltzen dira. Maniobra hutsak izaten dira honako mezu hauek, kapitalak bideratutako maniobrak.

Honekin guztiarekin etekinak ateratzen dituen bakarra kapitala da, eta etekin hauek, gero eta handiagoak izaten dira gu gero eta kontsumistagoak garen eanean. Gure denbora librearen ere, gehienetan kontsumoan oinarritzen da. Gure aisia kontsumitzen pasatzen dugu, beharrezkoak ez

diren erosketak egiten, eguna merkatal zentruetan pasatzen,... Guzti honek, kapitala gehiago aberastan laguntzen du eta honek ondorio larriak dakartza. Honekin guztiarekin bukatu nahi izatea lehenengo pausua da. Pausu honek, bizi dugun gizarte kapitalista suntsitzeko aurrerapausu handia suposatuko du.

3. GIZARTEAREN ZAHARKITZEA

Medikuntzan, eta zientzian oro har, izandako aurrerakuntzak bizi kalitatean hobekuntza ekarri dute herrialde aberatsetan. Hori dela eta bizi itxaropenak gora egin du. Horrekin batera gaur eguneko lan-baldintza eskasek eta egonkortasun ezak, norbanakoikeriarekin batera, ume gutxiago munduratzeari izan du ondorio. Bi faktore horiek biztanle piramidearen desoreka ekarri dute. Etorkizunean nork egingo du lan gizartean gehiengo bihurtuko diren zaharren pentsioak ordaintzeko? Gaur egun proposatzen den jubilazioaren atzeratzea ote da irtenbidea? Ez dakit bi galdera horiek erantzuten, baina argi dago etorkinek funtsezko betebeharra izango dutela zahartzen ari garen gizarte hori maila batean bederen eusteko.

Hala ere, nire ustez zahartzen ari den gizarte honi ez badiogu buelta ematen gizartearen beraren hileta ari garela prestatzen, umeen bizipoz, ilusio eta indarrak gabe etorkizunik gabeko oraina ari garelako bizitzen.

4. IMIGRAZIO TASEN GORAKADA ESANGURATSUA

Normalean, 3. munduko herrialdeko pertsonak izaten dira, lehen munduko herrialdeetara datozenak, herrialde hauek direlako lan gehiago dagoen tokia. Nahiz eta lanpostu txarrak lortu, kontraturik gabe egon edo soldata txikiak lortu, egoera prekario hauek onartzen dituzte. Ez dakit zer bultzatzen duen pertsona guzti hauei bizi berri hau bilatzera, gehienetan, bere herrialde baino txarrago aurkitzen dira hemen. Baliteke, telebistan saltzen dieten ipuina sinestea. Dirudienek, lehen mundua, maila ekonomikoa hobea da, gure bizi kalitatea, hobea da, bizi normal bat aurrera eramateko aukera gehiago ditugula pentsatzen dute agian. Baina aukera guzti hauek eskuragarri izateko, dirua behar da.

Egia da, herrialde bezala, maila ekonomikoa gehiago dugula, hau da, diru gehiago dago, baina eguneroko bizitza eta kontsumitzeko dugun ohiturak ere, zailtasunak gehitzen dio aurresteke ideari. Gainera gero eta konplikatua da lanpostu dezente bat aurkitzea, non zure eskubide eta bete-harrak errespetatzen diren. Hau zoritxarrez eza da inon gertatzen.

Gainera, gure gizartean aurreiritzi gehiegi daude eta normalean beste lurraldeetatik datozen pertsonak, egoera ekonomikoaren arazoak gain, sozialki ere, aukerak ukatzen zaizkie.

5. INDIVIDUALISMOA GEHITZEA

Urteen joan etorrian hainbat aldaketa eman dira gure gizartean. Indibidualismoak ere gero eta indar handiagoa hartu du. Esan beharra daukagu, gure gizartea gero eta indibidualizatuagoa ari dela bilakatzen, nolabait esateko, pertsona bakoitzak bere mundu propioa eraiki duela, hau da, norberak bere erabakiak hartzen ditu besteei kalte, min, etab. egin diezaieketelakoan kontutan izan gabe. Bestalde, gurasoen papera ere asko aldatu da gizartean izan dituen funtzioei erreparatzen badiogu. Orain hamarkada batzuk zerbait egiterakoan familiarekin hitz egin behar zen, beraien oeritzia eskatu, gaur egun aldiz, badirudi komunikabideek, batez ere telebista, egunerokotasun batetan bilakatu direla. Izan ere gero eta ordu gehiago ematen dira telebistaren aurrean.

Gero eta indibidualizatuagoa izatearen beste arrazoi batzuk elkar biltzeko eta komunikatzeko leku gutxi daudela da. Honez gain ez dugu ahaztu behar gizarte honetan bizitzeko dirua beharrezkoa den zerbait dela eta honek lan ordu batzuk suposatzen dituelarik. Hau dela eta, familiakoekin edo lagunekin biltzeko aukera ere asko murrizten da. Honekin loturik, kulturari ere gero eta arreta edo interes gutxiago ematen zaio, ez zaigu interesgarria iruditzen edota zenbait kasutan ez dugu denborarik izaten.

Kontsumoari dagokionez ere, gero eta indibidualizatuagoa ari da bilakatzen gizartea, eta honen adibiderik nabarmenena etxe bakoitzean dauden kotxe kopuruak dira. Lehen kotxe batek familia oso baten beharrezkoak betetzen zituen bitartean, gaur egun, pertsona bakoitzeko kotxe bat dago. Telefono mugikorren, interneten eta azken finean teknologia berrien sorrerak asko lagundu du gizarte indibidualizatu bat sortzen. Garai baten ematen zen elkar-harreman eta elkar-komunikazio hori apuratu egin da.

6. OSASUN ETA GIZARTE BEHARRIZANETAN GORAKADA

3. adinaren hazkuntzak, XX. mendeko gizarte garatuetan eman den aldaketarik garrantzitsuena suposatzen du. Zaharren gorakada honen arrazoi nabariena, gaur egun umeak edukitzearen ideia alde batera laga dugula izan da hain zuzen ere, lehen bikote bakoitzak gutxi gora-behera hiru haur izatetik bat izatera pasa gara. Guzti honek, gastu sozialen eta osasun zerbitzuen hazkuntza dakar hala ere, bizi esperantza honen gorakada ez da arazo bat bezala hartu behar baizik eta gizarte modernoaren lorkuntzarik garrantzitsuenetariko bat moduan hala nola, osasun, pentsio eta gizarte sistemaren disfuntsio asko sortarazten baitu. Beraz, esan beharra dago, nagusientzat ematen den asistentzia sozialean, lanpostu asko sortarazi ahal dela batik bat egoitzetako enpleatu, teleasistentzia, gaueko estantziak eta bizileku laguntzen artean.

Bestalde, zaharren hazkuntza honek, osasun zerbitzu bai publiko eta bai pribatuak indartzea ekarriko du eta era berean pentsionisten gastu farma-

zeutikoen erabilera areagotzea ere. Beraz, zeregin handiena, osasun zerbitzuen hobekuntza izango litzateke, aipatutakoaz gain, gaixotasun asko agertzen direlako zahartzerako orduan.

7. KONPETENTZIEN ETA KUALIFIKAZIOEN EXIGENTZIEN GORAKADA LANEAN

Lehenengo eta behin esatea, gaur egun gizartean, konpetentzia eguneroko ogia dela argi dagoela. Hau, nire ustez, hainbat gauzengaitik izan daiteke, eta hurrengoko gogoetan azalduko ditut horrelako gauzak.

Hasteko esango nuke, gaur egun gizarte konpetenteetan ekonomia nahiko altua dela orokorrean, honek egiten du, ikasteko posibilitatea geroz eta handiagoa izatea, honek konpetentzia handitzea egiten du, era berean.

Honez gain, gure gizartean konpetentziaren beste zergaiti bat, pertsona guztion edo ia guztien hobekuntza nahia. Hau da, honekin zera esan nahi dut, pertsona orok nahi du, norberarentzat eta baita bere ingurukoarentzat, hoberena lortzea eta honek besteak zapaltzea ekarri dezake, hau da, norberak hoberena lortzeko, besteak zapaltzea.

Azkenik, ondorio bezala, hainbat arrazoi daude la gizartearen konpetentzien zergaitiak azaltzeko, baina argi dagoena, konpetentzia hau, azken urte honetan asko nagusitu dela. Beraz, gerta liteke geroz eta konpetentzia handiagoa sortzea, urteen poderioz. Honekin batera, beste zenbait arazoz desberdin sortuz.

8. ONGIZATE ESTATUAREN KRISIA

Pertsona guztiak gure etorkizuna ahal dugun hobeagoa edukitzen saiatzen gara eta horrek esan nahi du lanbide on bat eta etxebizitza bat lortzea. Lanbide on bat edukitzeak gutxienez etxea, janaria, erropa eta kasu gehienetan, umeak batez ere egonda, hezkuntza mantentzeko baimena ematen duen diru kantitate bat hilabetero irabaztea.

Hala ere, behin hori edukita gehiago nahi dugu, hau da, denbora librean bizitzaz disfrutatzea. Gaur egun bizitzaz disfrutatzea diru kantitate altuak gatzatzea esan nahi du gehien bat asteburuetan. Asteburuetan hiri handiak egokienak izaten dira aktibitate hauek aurrera eramateko. Hori dela eta gure bizitza soziala alde batera usten dugu, beraz komunikazioa ez da asko ematen. Sozializazioa eguneroko bizitzan ezinbesteko gauza izan beharko litzateke baina hori ez da horrela gizarte hau oso indibidualista delako eta pertsonen arduratzen zaigun gauzarik garrantzitsuena bakoitzaren bizitza hobetzean datza.

Bizitza hobetzeko edozer gauza egiteko kapazak gara eta hori natura aldatzea esan nahi badu, natura aldatu egiten dugu. Baina momentu batez geroetan pentsatu egingo bagenu ekintza asko ez

genituzke egingo. Aldaketa asko nahi dugun guztia eta behar dugun guztia eskura izatea nahi dugulako ematen dira eta horrekin ez gara konturatzen herriak kaos baten bihurtu egiten ditugula.

Azkenean faktore guzti hauek gure osasunean eragin garrantzitsu bat daukate eta gure bizitzako momento konkretu batean aldaketa handi bat suertatu ahal dute.

9. ERABAKI PUBLIKOEN ESKUHARTZEA MURRIZ-TUA

Gaur egun, pertsonen partehartzea erabaki publikoetan gutxitu egin dela esan dezakegu. Honek ez du esan nahi jendeak parte hartu nahi ez duenik, baizik eta alderantziz, parte hartu nahi bai baina ez zaie kontutan hartzen. Esan dezakegu, gure mundu hau hiru bururen menpe dagoela, eta hauek direla guztiarengan erabakiak hartzen dituz-

tenak eta beraiek behar dituzten lorpenak aurrera eramaten dituztenak beste guztiak kontutan hartu gabe. Gizartearen parte hartzea orokorrean, ez da existitzen, beste batzuk dira gizartearentzat zer den ona eta zer ez erabakitzen dutenak.

Honen inguruan, adibide bat jarri daiteke, agian ez da kasu hau hoberen isladatzen duena, baina ulertzeko balio duela uste dugu. Gure gizarte honetan, noizbehinka bozketak egiten dira erabaki ezberdinak hartzeko. Suposatzen da, erabaki hauek, pertsona guztien artean hartuko direla, denok dugu bozkatzeko aukera eta erabakian partehartzeko aukera. Berez horrela izan beharko litza-teke, baina beti ere ez da horrela. Askotan, bozketak egin aurretik, erabakiak hartuak egoten dira, eta guztia antzerki hutsa bihurtzen da denak lasai gure etxeetara joateko, baina guzti honen atzean, lehen aipatu ditugun hiru buru hauek daude, eta azken batean, beraiek nahi dutena gertatuko da, guztiarekin gertatzen den bezala.